

EUNEIZ, TEKNOLOGIA BERRIEN, KIROLAREN ETA OSASUNAREN UNIBERTSITATE PRIBATU GISA ONARTZEKO EUSTEIZ 2018 S.A. ENPRESAK AURKEZTUTAKO MEMORIAREN EBALUAZIO-TXOSTENA

Unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu, baimendu eta egiaztatzeko maiatzaren 29ko 420/2015 Errege Dekretuaren 6.2. artikuluko a) atalaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitate-kalitatea kanpotik ebaluatzeko organoa denez, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari dagokio unibertsitate berri bat sortzeko aurkeztutako eskabideen titulazioak garatzeko plana ebaluatzea.

Unibasqeko Ebaluazio Batzordearen osaera Unibasqeko Aholku Batzordeak onartu zuen 2018ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, eta ebaluazio-txosten hau egin du, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2017. urteko azaroaren 20an bidalitako informazioan oinarrituta.

Txosten honen egituran hitzez hitz egokitu eta erreproduzitzen dira maiatzaren 29ko 420/2015 Errege Dekretuak unibertsitateak sortzeko, onartzeko eta baimentzeko eskatzen dituen baldintzak eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legeak eskatzen dituenak.

1. DIMENTSIOA. Titulazio ofizialen gutxieneko eskaintza akademikoa izatea.

Unibertsitateek gutxienez graduako eta masterreko zortzi titulu ofizial lortzeko irakaskuntza-eskaintza izan beharko dute. Eskaintza akademiko horrek koherentea izan beharko du jakintza-adar bakoitzaren baitan eta bere osotasunean.

Unibertsitateak titulazioak garatzeko plan bat aurkeztu behar du jakintza-adar bakoitzeko. Plan horrek, gutxienez, honako hauek jaso behar ditu: titulazioen zerrenda, eskaini nahi diren unibertsitate-plazen kopuru osoaren aurreikuspena, ikasturteak ikasturtera; jarduera horiek zein ikasturtetan hasiko diren eta irakaskuntzak osorik ezartzeko eta dagozkien ikastetxeak abian jartzeko egutegia, bai eta horiek garatzeko berariazko baliabideak ere.

Era berean, titulazio bakoitza ezartzeko, unibertsitateko irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako ikasketa-planak egiaztatzeko eta akreditatzeko prozedura bete beharko da.

BALIOESPENA:

Ez dira behar bezala betetzen unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu, baimendu eta egiaztatzeari buruzko maiatzaren 29ko 420/2015 Errege Dekretuan eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legean ezarritako betekizunak.

DIMENTSIOAREN BALIOESPENAREN JUSTIFIKAZIOA:

8 titulu, 5 gradu eta 3 master eskaintzea proposatzen da, lau jakintza-adarretan banatuak. Gainera, gradu bikoitzeko eskaintza ere sartzen da, eskainitako bi gradu aldi berean egin ahal izateko.

Bi fakultatetan emango lirateke eskolak: Osasun Zientzietan eta Teknologia Interaktibo Berrietan (nahiz eta batzuetan Eduki Digital Interaktibo ere esaten zaion, adibidez, Arteen eta Humanitateen arloko prestakuntza-eskaintzaren 5. kapituluan, akats baten ondorioz, ziurrenik).

Memorian, Euskal Unibertsitate Sistemaren egungo eskaintza aztertzen da. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua UPV/EHUn eta Deustuko Unibertsitatean ematen da. Fisioterapiako Gradua UPV/EHUn egin daiteke. Txostenean adierazi dute gaur egun eskaerak argi eta garbi gainditzen duela eskaintza. Badirudi Euskal Unibertsitate Sistemaren ez dagoela baliokiderik Eduki Digital Interaktiboetako eta Bideo-joko eta Joko Aplikatueterako Sormen Artistikoko gradueterako, nahiz eta beste herrialde batean (AEB) indarrean dagoen hezkuntza-sistema baten arabera dagoeneko Bilbo Digipen-en ematen diren. Musika Ekoizpeneko graduari buruz, adierazten da MUSIKENEK unibertsitatez kanpoko prestakuntza-eskaintza duela arlo horretan. Unibertsitateko masterrei dagokienez, adierazi da ez dagoela antzeko eskaintzarik, baina interesgarria da azpimarratzea gaur egun Euskal Unibertsitate Sistemaren horrelako tituluetarako plazen eskaintza eskatutakoa baino handiagoa dela. Memorian adierazten da Osasun Zientzien Fakultatean eskainiko liratekeen bi masterren egitura erdipresentziala izango litzatekeela, baina ez da gehiago zehazten gai horren inguruan.

Titulu bakoitzaren planteamendua bat dator dagokion ezagutza-adarrarekin, baina, hala ere, ez da koherentzia argirik ikusten eskainitako tituluen multzoari dagokionez. Osasun Zientzien adarreko tituluek lotura argia dute kirolaren munduarekin, eta lanbide-garapenaren eremu horretarako eskaintza nahiko osotzat har daitezke, nahiz eta jakintza-adar horretan landu ohi diren gaitasunen zati txiki bat baino ez duten betetzen.

Beste lau tituluak, neurri handiagoan edo txikiagoan, eduki digitalen diseinuarekin, garapenarekin eta merkaturatzearekin lotuta daude, baina ezin da ziurtatu eremu horretan gaitasunak eskuratu nahi dituztenentzat eskaintza osoa egiten dutenik. Adibidez, edukien diseinuaren esparruan, ikasketak musika-ekoizpena eta bideo-joko eta joko interaktiboetara bideratuta daude. Musika-ekoizpenarekin eta bideo-joko eta joko aplikatuekin lotutako lau titulu horien kasuan, lauretan errepikatzen den aurkeztutako garapen-planak, ez du justifikatzen Arteak eta Giza Zientziak (2), Ingeniaritza eta Arkitektura (1) eta Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak (1) jakintza-adarretara atxikitzea.

Beraz, bi titulazio-talde eskaintzen dira, elkarren artean itxuraz loturarik ez dutenak eta kokatzen diren adarretako bakar batean ere eskaintza osoa egiten ez dutenak; horrez gain, ez dirudi horiek proposatzen dituen gizararen indargune edo aktibo bereizgarri jakin batzuen aprobetxamenduari lotuta daudenik ere (adibidez, nabarmentzeko moduko tradizio edo esperientzia batena). Horiek guztiak merkatuan sarbide libreko baliabide fisikoak edo giza baliabideak eskuratzearan edo kontratatzearen mende daude; hortaz, dagoeneko ezarrita dagoen beste edozein erakundek edo unibertsitatek eman dezakeen eskaintza da.

EUNEIZen erreferentetzat jotzen dira ENTI – Bartzelonako Unibertsitateari atxikitako zentroa – eta EUSES – Gironako Unibertsitateari atxikitako zentroa –bi unibertsitate-eskola EUNEIZ sortzeko gunea izan direnak. Txostenean emandako azalpenetatik ondoriozta daiteke bi ikastetxe horien prestakuntza-eskaintzak, irakaskuntza-antolamenduak eta ikerketa-jarduerak inspiratu dutela EUNEIZen proposamena, haien tituluen eta unibertsitate eskatzaileak programatutakoen arteko antzekotasuna dela eta, baina ez da behar bezala zehazten erlazioa, halakorik badago. Proposatutako eskaintza unibertsitate bati atxikitako zentro bati dagokio, unibertsitate bati baino gehiago. Izan ere, jada finkatuta dauden unibertsitatei atxikitako zentroak dira proiektuarekin lotzen diren ENTI eta EUSES zentroak.

Hainbat irakasgairi buruz emandako informazioan, oinarritzko irakasgaiak eta nahitaezkoak bereizten dira, baina oinarritzko irakasgaiak nahitaezkoak izan beharko lukete.

40 plaza berri daude graduatarako, Fisioterapiako graduan izan ezik, 60 plaza eskaintzen baititu, eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien eta Fisioterapia gradu bikoitzean 25 plaza. Hiru masterretarako plaza berriak 25 dira. Laburpen-taulan, gradu bikoitzeko sarbide berrirako 15 plaza daude.

Jarduera akademikoak ematen hasiko diren ikasturtea zehaztuta dago, bai eta hurrengo lau urteetan titulazioak nola garatuko diren ere. Aurreikuspenen arabera, 2019-2020 ikasturtean lau gradu eta master bat emango dira; hurrengo ikasturtean, 2020-21 ikasturtean, beste gradu bat eta beste master bat hastea proposatzen da; eta, 2021-22 ikasturtean, eskaintza gradu bikoitzarekin eta azken master batekin osatu nahi da. Ikasturte horretan amaitutzat emango da aurkeztutako plana. Memoriak ez du aurreikusten gerora irakaskuntzak arlo bakar batean ere hedatzea, ezta ahalmen berriak sortzea ere.

Lege-esparruaren arabera, titulazio bakoitzaren ezarpena egiaztatze- eta akreditazio-prozeduraren mende dago. Beharrezkoa da ziurtatzea abian jarriko diren irakaskuntzek erreferentziatzen hartu dituztela titulazio horiek guztiak ontzat joko direla aurreuposatzea ahalbidetzen duten tituluak. Lehenago esan bezala, unibertsitateak, graduak diseinatzeko erreferente gisa, Kataluniako hainbat unibertsitateri atxikitako EUSES eta ENTI erakundeek eskaintutako tituluak hartu ditu. Erakunde horiek graduako ikastaro egiaztatuak ematen dituzte, eta, beraz, erreferente egokia izan daitezke. Masterretarako ere ikastetxe berberak hartu dira erreferentziatzen, baina kasu honetan ematen diren masterren ikastaroak ez daude egiaztatuta. Ez dira erabiltzen, EUSES eta ENTIn gain, masterrak diseinatzeko beste erreferente batzuk, ziurtatzeko, hurrengo bost urteetan abian jarri nahi diren zortzi titulazio ofizialak egiaztatutako eta akreditatutako titulazioak izango direla. Memorian masterrei buruz emandako informazioari erreparatuta, ezin da argi jakin master horien maila MECESek ikasketa mota horietarako ezarritako mailari dagokion.

2. DIMENTSIONA. Ikerketa-programazio egokia izatea

Unibertsitateek ikerketaren garapena sustatu beharko dute. Hala, unibertsitate berria osatzen duten titulazio ofizialekin zerikusia duten zientzia-arloetako ikerketa-jardueraren urte anitzeko programazioa aurkeztu behar da, eta, besteak beste, honako hauek jaso behar dituzte: talentu zientifikoa erakartzeko estrategiak, azpiegitura zientifiko-teknikoak eskuratzeko, erabiltzeko eta/edo eraikitzeko estrategiak, eskualdeko, estatuko eta nazioarteko ikerketa-proiektu lehiakorretan parte hartzeko estrategiak, eta I+G+B arloan ekoizpen-sektorearekin lankidetzan aritzeko adierazleak barne.

BALIOESPENA:

Ez dira behar bezala betetzen unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu, baimendu eta egiaztatzeari buruzko maiatzaren 29ko 420/2015 Errege Dekretuan eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legean ezarritako betekizunak.

DIMENTSIONAREN BALIOESPENAREN JUSTIFIKAZIOA:

Unibertsitateak ikerketa-jardueraren programazio bat aurkezten du, ikerketa garatzeko eta sendotzeko balizko estrategietan, hainbat eremutako ikerketa-jarduerarako erreferentzia-esparruen garapenean eta oinarritzko printzipio batzuetan oinarrituta.

Garapen- eta finkatze-estrategiak identifikatzeko hiru elementu hartu direla kontuan adierazten da. Horietako bat erakunde berriaren lidergo akademikoaren esperientzia da (lidergoaren eta ikerkuntzaren kudeaketaren karrera profesional zabala duena). Alderdi hori ezin da balioetsi, ez baitira ikertzaileen CVak aurkezten.

Aurkeztutako alderdi orokorrekin batera ez dago estrategia horiek EUNEIZ unibertsitatean nola aplikatuko diren balioesteko ikerketa-plan zehatzik, eta ez da osasunaren eta teknologia interaktiboan esparruetako jardueretan oinarritutako errealitate ongi definiturik aurkezten. Ikerketako arlo kritikoaren identifikazioaren falta sumatzen da, eta, baita, ikerketako buru izango diren figura akademiko bat edo gehiago identifikatzearena, epe laburrean kanpo-finantzaketa lortu ahal izateko, beste ikerketa egokiko argitalpen zientifikoak sustatzeko eta beste ikerketa batzuk sustatzeko ardura hartuko dutenak identifikatzearen falta. Memoriak lau urteko ikerketa-plana ezartzeko jarraitu beharreko metodologia deskribatzen du, eta klaustrorik egingo duela adierazten du, lidergorik zehaztu gabe. Hala ere, ez da deskribatzen ikerketa-taldeak osatuko dituzten ikertzaileen profilik. Oro har, ikerketa garatzeko plana hasiberriegia da.

Egindako planteamenduan ahulgune batzuk antzeman dira:

- Kirol-osasunaren esparruan ardaztuta dago. Ezarritako ikerketa-ildoak garatzeko teknologia digitalen arloko gaitasunek beharrezkoak diruditen arren, ez dirudi eduki digitalen garapenarekin zuzenean lotutako ikerketa-planik dagoenik, are gutxiago musika-ekoizpenarekin. Beraz, badirudi ikerketa-plana aurkeztutako irakaskuntza-eskaintzaren % 50ari soilik lotuta dagoela.

- Asmo handiko helburuak planteatzen badira ere, ez dago horien egingarritasuna babesten duen ebidentziarik. Finantzaketa lehiakorra lortzea zaila da, jada nolabaiteko ikerketa-oinarririk eta -ibilbiderik ez badago. Alde horretatik, ikertzaileen ekarpenean oinarritutako langileen balizko kontratazioari eta jarraipenari erreferentzia egiten bazaio ere, ez dago ebidentziarik dagoeneko hitzartuta dituzten langileek ikerketa-merituak dituztela esateko eta planifikatutako denbora-horizontean funts lehiakorrak erakartzeko gaitasuna duten ekoizpen-ikerketako taldeen konfigurazioa aurreikus dezaten.
- Talentua erakartzeari edo ikerketa-karreraren garapenari buruz emandako informazioa anbiguo samarra da, eta ez da zehazten nola ziurtatuko den ikerketa-gaitasun egiaztagarriak dituen irakaskuntza-taula bat.
- Lanaldi osoko irakasleen irakaskuntza-dedikazioa eskola presentzialeko 324 eta 360 ordu artekoa izango dela aurreikusten da, eta horrek pentsarazten du ikerketarako denbora oso murrizta izango dela.
- Ikerketako arlo kritikoak ongi ez definitzeak zaildu egiten du azpiegitura espezifikoaren egokitasuna ebaluatzea, oso modu orokorrean deskribatzen baitira.
- Jarduketa ugari proposatu dituzte, eta deigarria da horietako zenbait 2018/19 ikasturtean hasteko asmoa dutela. Jarduera horietako asko barnean finantzatu beharko lirateke. Ez dirudi aurrekontuan esleitutako urteko kopuruak (100k, 136k, 209k, 268k, 282k euro, hurrenez hurren) nahikoak direnik jarduera horiek egiteko. Zenbateko horiek jasotzen dituzten emaitzen kontuan, honela banakatzen dira: ikertzaileen kostua % 85 da, eta materialena, % 15.
- Urte anitzeko programazioan (lau urtekoa) desadostasun kronologikoak daude; izan ere, kasu batzuetan 2018-2023 aldiari dagokio, eta beste batzuetan 2019-2023 aldiari.

3. DIMENTSIOA. Behar adina irakasle eta ikertzaile izatea, kualifikazio egokiarekin.

Unibertsitate bakoitzean irakasle eta ikertzaileek guztira duten kide-kopurua ezin izango da izan unibertsitateko irakaskuntza ofizialetan matrikulatutako ikasle kopuru osoari 1/25 erlazioa aplikatuta ateratzen dena baino txikiagoa.

Ratio hori lanaldi osoko erregimenean edo lanaldi partzialeko araubidean zenbatutako irakasle eta ikertzaileei dagokie. Unibertsitateak modalitate ez-presentzialean irakasten duenean, ratioa moldatu ahal izango da. 1/50 eta 1/100 artean egon daiteke, titulazioen esperimentaltasun-mailaren eta erdipresentzialtasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

Unibertsitateetako irakasleen eta ikertzaileen langile taldea, gutxienez, honako hauek osatuko dute:

- a) Graduako titulua lortzeari dagozkion irakaskuntza guztietarako, % 50 doktoreak.
- b) Master-titulua lortzeari dagozkion irakaskuntzetarako, % 70 doktoreak.
- c) Doktorego-ikasketak emateko ardura duten unibertsitateko irakasle guztiek doktore-titulua izan beharko dute

Horretarako, irakasle-kopurua lanaldi osoko dedikazio baliokidearen arabera kontatuko da. Era berean, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren hamabigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Osasun Zientzien arloan, unibertsitateen eta osasun-erakundeen arteko itunetan zehazten den irakasle elkartuen plaza- kopurua ez da kontuan hartuko artikulu honetan adierazitako ehunekoen ondorioetarako.

Doktore-titulua ez duten irakasleek, gutxienez, lizentziatu-, arkitekto-, ingeniari-, graduatu- edo baliokidea den tituluren bat izan beharko dute, egin beharreko irakaskuntza-jarduerarako Unibertsitate Kontseiluak, oro har, diplomadunaren, arkitekto teknikoaren edo ingeniari teknikoaren titulua nahikoa izatea zehaztu duen jakintza-arloetakoa denean izan ezik. Kasu horretan, eta berariazko arlo horietako irakaskuntzarako, nahikoa izango da irakasleek azken titulu horietakoren bat izatea.

Unibertsitateek bermatuko dute beren irakasle guztien % 60k, gutxienez, dedikazio osoko erregimenean beteko dituztela beren eginkizunak.

Baldintza horiek frogatzeko, unibertsitateek irakasle eta ikertzaileen plantilla jardueraren hasieran aurkeztu beharko dute, bai eta aurreikusitako haien urteko iguera ere, kasuan kasuko irakaskuntza erabat ezarri arte.

BALIOESPENA:

Ez dira behar bezala betetzen unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu, baimendu eta egiaztatzeari buruzko maiatzaren 29ko 420/2015 Errege Dekretuan eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legean ezarritako betekizunak.

DIMENTSIOAREN BALIOESPENAREN JUSTIFIKAZIOA:

Memorian, irakasle eta ikertzaileen PDI txantiloia aurkezten da, bai jarduera hasteko, bai ondoren sartuko liratekeenentzat. Jardueraren hasieran irakasleek eta ikertzaileek duten kategoria akademikoari buruzko informazioa ematen da, bai eta titulazio guztiak ezarri arteko urteko igoyerari buruzkoa ere.

Aurkeztutako zerrendetan honako hauek agertzen dira: izena, titulu akademikoa, doktoreak diren ala ez eta doktore akreditatuak diren, erakundearen kategoria (taldea eta maila) eta ezagutza-eremua. Deigarria da planteatzen diren kategoriak eta antolamendu- eta funtzionamendu-arauen 39. artikuluan adierazten direnak oso desberdinak direla. Irakasle eta ikertzaileen kategoria akademikoa aipatzean, doktoreen eta ez-doktoreen arteko bereizketa egiten da, eta doktoreen artean, berriz, akreditatuak eta akreditatu gabeak bereizten dira, baina ez da adierazten zein kategoria akademikorako akreditatuta dauden edo egongo diren.

Gutxienez 40 irakasle bermatzen dituzte (2019/20 ikasturtea), 88 (2020/21), 135 (2021/22), 173 (2021/22) eta 180 (ikasturte horretatik aurrera). Urte horietan, lanaldi osoko baliokideen ehunekoa % 30-40 bitartekoa izan litzateke. Tituluaren arabera bereizitako datuak eskaintzen dira, lanaldi osoko eta lanaldi partzialeko langileak bereizita. Taula horietatik ondorioztatzen da lanaldi osoko langileak ez direla irakasle guztien % 60ra iritsiko.

Lanaldi osoko doktoreen kopurua % 12 ingurukoa da, eta ez da handia planteatzen duten ikerketa-programa garatzeko. Memoriak ikerketan parte har dezaketen irakasleen berri ematen du. Ikusten da irakasle guztiak ez direla doktore. Zein ikerketa-arlotan lan egingo duten deskribatzen ez denez, zaila da haien egokitasuna balioestea. Gainera, kontuan izan behar da, antolamendu- eta funtzionamendu-arauen 60.b artikulua eta EUNEIZeko ikasleen araudiaren 2.12 artikulua arabera, ikasleek formazioa Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzeko eskubidea dutela, eta horrek irakasleen beharra areagotzea ekar dezakeela. Horregatik, informazio gehigarria eman beharko litzateke irakasle eta ikertzaileen hizkuntza-gaitasunari buruz eta, baita, aurreikusitako titulazioak emateko hizkuntzen inguruko plangintzari buruz ere.

Emandako informazioaren arabera, ezarpenaren lehen urtean, Osasun Zientzien Fakultateko irakasleen % 72 doktorea izango da; Teknologia Interaktibo Berrien Fakultatean, berriz, irakasleen % 61,90 izango da doktorea ezarpenaren lehen urtean. Honako informazio hau falta da: lanaldi osoan egongo direnak, graduak edo masterrak emango litzaketenak eta zer titulaziotan parte hartzen duten, eta, batez ere, haien CVak, nahiz eta laburtuak izan. Adierazi beharko litzateke zein titulaziotan arituko diren irakaskuntzan horietako bakoitza, eta ziurtatu beharko litzateke indarreko araudian eta Agentziak ezarritako irizpideetan eskatzen diren irakasle doktoreen proportzioak betetzen direla.

Aipatutako kasu guztietan kontratazio-proposamenak dira, baina proposamena egin duen sozietateak gaur egun ez du loturarik aipatutako irakasleekin, eta, beraz, ez dago bermatuta hori gauzatuko denik.

Tituluetan eta/edo ikerketa-jardueretan sartuko diren irakasle eta ikertzaileen zerrenda egitean, ez da adierazten zer urte zehatzetan sartuko diren aurreikusitako irakasleak.

4. DIMENTSIOA. Bere eginkizunak betetzeko instalazio, baliabide eta baliabide egokiak izatea.

Unibertsitateek, gutxienez, irakaskuntza- eta ikerketa-funtzioak garatzeko azpiegitura eta baliabide material egokiak eta nahikoak izan behar dituzte, irakaskuntza-motak eta matrikulatutako ikasle-kopurua kontuan hartuta, baldintza funtzional egokiak betetzen dituztenak eta irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak egiteko aukera ematen dutenak. Nolanahi ere, honako hauek izan beharko dituzte:

- a) Irakaskuntzako eta ikerketako espazioak. Horien kopurua eta azalera aldi berean erabiliko dituzten ikasleen kopuruaren arabera izango da. I. eranskinean instalazioen egokitasuna balioesteko gutxienezko moduluak jasotzen dira.
- b) Ikaskuntzarako eta Ikerketarako Baliabideen Zentroa. Helburu horretarako eraikinak edo zerbitzu fisiko edo birtualek, unibertsitateko liburutegi-zerbitzuak barne, gutxienez matrikulatutako ikasle-kopuru osoaren ehuneko hamarrek aldi berean erabiltzeko aukera eman beharko dute.
- c) Informatika-ekipamendua: Interneterako konektagarritasun egokia bermatzen duten gelak eta zerbitzu orokorrak, WiFi-gunea sortu eta ikasleentzako ordenagailu-kopuru egokia bermatuta, eta web-zerbitzuen bidez unibertsitateko komunitatearentzako irakaskuntza- eta zientzia-eskakizun instituzionaletarako sarbidea.

Osasun Zientzien esparruko irakaskuntzen kasuan, eskakizun bereziak ezartzen dira II. eranskinean.

Nolanahi ere, unibertsitateko instalazioek laneko arriskuei aurrea hartzeko baldintzak bete beharko dituzte, baita indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen baldintza akustikoak eta bizigarritasun baldintzak ere. Halaber, ezgaitasuna duten pertsonen mugitzeko aukera emango dieten baldintza arkitektoniko egokiak izan beharko dituzte, araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera.

BLIOESPENA:

Ez dira behar bezala betetzen unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu, baimendu eta egiaztatzeari buruzko maiatzaren 29ko 420/2015 Errege Dekretuan eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legean ezarritako betekizunak.

DIMENTSIAREN BALIOESPENAREN JUSTIFIKAZIOA:

Jardueren egiteko, 2200 m² inguruko eraikina alokatu du unibertsitateak. Alokaturako espazioa, itxuraz, ez da nahikoa. Eraikin horretan ez da praktika-gelarik aurreikusten Osasun Zientzien Fakultatean; hortaz, jardueren % 100 kanpoko zentroetan egin beharko dira. Praktika horiek garatzea ziurtatuko lukeen hitzarmen batzuk erantsi dira. Egoera horren ondorioz, unibertsitatea beste zentro batzuekiko mendetasun-egoeran dago, eta zentro horien jarduera nagusia ez da profesionalak prestatzea. Nolanahi ere, praktikak emango diren zentro gehienak unibertsitateko kapitalean akziodun minoritario gisa parte hartzen duten enpresei dagozkie.

Osasun Zientzien Fakultatean 4 gela edukiko lituzkete, eta horrek soilik lau titulazioen lehenengo maila hartzeko aukera emango luke. Goizez eta arratsaldez programatuz gero, bigarren ikasturtea antola daiteke. Ez litzateke lekurik egongo gradu bikoitzeko ikasleentzat aparteko taldean irakasten bada, eta graduen taldeei gehituz gero, ikasgela handiengan (80ko edukiera) sartuko ez liratekeen 85 ikasle berri (60+25) lortuko lirateke. Salburua eraikinean, Buesa Arena pabiloian eta Bakh pabiloian irakaskuntzak ezartzeko lehen ikasturteetarako aurreikusitako behin-behineko baliabideek ez dute bermatzen irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren garapen normala, musika-ekoizpenarekin eta bideo-jokoekin lotutako ikasketen kasuan. Erabilgarri dauden baliabideak ez dira matrikulatutako ikasle-kopuruaren aurreikuspenaren eta irakaskuntza horien espezifikotasunaren arabera kuantifikatzen.

Memorian ez dago argi zer instalazio izango dituzten erabilgarri. I. kapituluari (EUNEIZ proiektua), kokapen-puntuan honako hau adierazten da: "Etorkizuneko unibertsitatea Salburua Eraikin enblematikoan egongo da. Era berean, EUNEIZen instalazioek 4.500 metro karratu hartuko dituzte Deportivo Alavesen etorkizuneko kirol-hirian...", hau da, etorkizunean biak erabiliko direla ematen da aditzera. Bestalde, V. kapituluari (Azpiegiturak eta baliabide materialak) adierazten da EUNEIZek unibertsitate-eraikinak izango dituela, jarduera akademikoen hasieran amaitu gabe egongo direnak, eta Salburua eraikinaren alokairu-kontratua egin dela lehen bi urteetarako. Berez, V. kapituluari bi taula erakusten dira, dirudienez eraikin berriari eta Salburuakoari dagozkienak. Informazio bera dago 7. atalean (Azpiegiturak eta baliabide materialak). Hala ere, 8. atalean (Bideragarritasuna eta negozio-plana) Salburua eraikina hartzen da kontuan.

Ez dago jasota aurreikusitako eraikinaren oinarriko proiekturik ez eta egikaritze-proiekturik. Orubearen eskuragarritasuna ere ez da aipatzen. Ildo horretan, zalantzak sortzen dira 19/20 ikasturtetik aurrera, bi urteko epean, hura erabilgarri izateko aukerari buruz.

Informatika-gelak, bai alokatutako espazioetan, bai eraikitzea aurreikusten den eraikinean, talde handi bat hartzea ahalbidetuko ez lukeen edukiera izango luke (46 edo 40 plaza, titulazio batean 60 ikasle berri egon daitezkeen).

Memorian ez dira argi azaltzen ikerketa-eremuak ere, eta horrek argi erakusten du unibertsitatearen ikerketa-proiektua hasi berria dela.

5. DIMENTSIOA. Zerbitzua ematen dela eta jarduerak mantentzen direla bermatzea.

Unibertsitateek haien jarduerak beren programazioan ezarritako helburu akademiko eta ikerketarekin lotutakoak lortzeko behar den denboran mantenduko dituztela bermatu beharko dute. Horretarako, unibertsitate publikoak sortzeko edo unibertsitate pribatuak onartzeko, eta ondoren baimena emateko, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Unibertsitate pribatuek finantziario ekonomikoa bermatuta dutela adierazten duten dokumentuak beharko dituzte. Berme horiek eskaintako tituluen eta matrikulatutako ikasleen kopuruaren arabekoak izango dira, eta irakaskuntza-eskaintzaren arabera kalkulatuko dira. Jarduera bideraezina bada, bideragarritasun- eta itxiera-plan bat ere aurkeztu beharko dute.

b) Unibertsitatea eta haren zentroetako bakoitza gutxieneko aldi batez funtzionamenduan mantentzeko konpromisoa, ikasketak hasi dituzten ikasleek behar adinako aprobetxamendu akademikoarekin amaitu ahal izateko. Unibertsitateek, beraz, ikasle horien ikasketak amaitzea bermatuko duten mekanismoak aurreikusi beharko dituzte, bai emandako titulazioren bat iraungitzen denean, bai unibertsitateak berak hala erabakita, bai tituluaren egiaztapena ez berritzeagatik.

Atal honetan, kontuan hartu behar da Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legearen 108. artikulua unibertsitate ez-publikoei ezartzen diela “unibertsitatea sortzeko, gutxienez hiru milioi euroko finantza-bermea eskatuko dela. Sustatzailea merkataritza-sozietate bat bada, ez da bermerik behar izango eraketa-eskirituran agertzen den hasierako kapital soziala hiru milioi eurotik beherakoa ez bada eta bazkide bakoitzak duen partaidetza jasota badago bertan”.

Hasieran ordaindutako kapital soziala ez da kopuru osoaren 100eko 50 baino txikiagoa izango, eta, nolahi ere, hasierako jarduerak garatzeko beharrezkoa dena izan beharko du, adostutako moduan”.

BALIOESPENA:

Ez dira behar bezala betetzen unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu, baimendu eta egiaztatzeari buruzko maiatzaren 29ko 420/2015 Errege Dekretuan eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legean ezarritako betekizunak.

DIMENTSIOAREN BALIOESPENAREN JUSTIFIKAZIOA:

KPMGk proiektuaren ekonomia- eta finantza-bideragarritasunari buruz egindako azterlan bat aurkeztu da. Azterlan hori behar bezala planteatuta dago, eta horrelako azterlanetan kontuan hartu ohi diren alderdi nagusiak jasotzen ditu; hala ere, muga batzuk ikusten zaizkio ezarriko den testuinguru espezifikoan:

- Txostenean bertan zehazten denaren arabera, analisia egiteko oinarritzko informazioa Zuzendaritzak antzeko proiektuetan duen esperientzian oinarritzen da neurri handi batean. Ildo horretan, eskaintzen diren plaza guztiak betetzeari dagokionez, nahiko baikorra da abiapuntua.
- Hainbat teknologia- eta ekipamendu-gastu aurreikusten dira urtero, ikasleen hazkundearen arabera handitzen direnak eta erosketa, alokairu edo amortizazio berriei dagozkien argitu gabe.
- Ez dago Unibertsitatearen desagertze-planik.
- Aurkeztutako txostenean ez da jasotzen jardueraren hirugarren urterako erabilgarria izatea aurreikusten den eraikina nola finantzatuko den.
- Euro/orduko ratioa erabiltzen da, eta oinarria irakaskuntza-orduak dira. Ez dirudi irakaskuntzaz gain ikertze-lanak egin behar direla kontuan hartu denik. Ikertzaileen kostua barneko aurrekontuan ikerketara bideratutakoaren % 85 da, eta askoz ere kopuru txikiagoak dira. Esan bezala, ez dago argi nola ordainduko den ikerketa, langile-kostua irakaskuntza-orduen arabera egiten baita.

EUNEIZ Unibertsitatea eta hura osatzen duten ikastetxe bakoitza gutxieneko epean mantentzeko konpromisoaren adierazpena aurkeztu dute, ikasketak behar adinako aprobetxamendu akademikoarekin hasi dituzten ikasleei haiek amaitu ahal izateko aukera dutela ziurtatzeko eta horretarako dagozkien mekanismoak hartzeko.

6. DIMENTSIONA. Antolaketa eta egitura egokiak izatea.

Estatutuek edo, unibertsitate pribatuen kasuan, unibertsitatearen jarduera eta autonomia arautzeko antolamendu- eta funtzionamendu-arauek konstituzio-printzipioekin bat etorri behar dute, eta katedra-, ikerketa- eta ikasketa-askatasunetan agertzen den askatasun akademikoaren printzipioa osotasunean eta eraginkortasunez errespetatu eta bermatu behar dute.

Estatutuek eta Antolaketa eta Funtzionamendu Arauek abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan eta unibertsitateko gainerako araudian jasotako aurreikuspenak jaso beharko dituzte, eta gutxienez:

- a) Unibertsitatearen izaera, eginkizunak eta eskumenak.
- b) Araubide juridikoa, langileena eta ekonomiko-finantzarioa.
- c) Egitura.
- d) Gobernu- eta ordezkari-organak.
- e) Ikasleen eskubideak eta betebeharrak.
- f) Unibertsitateko Defendatzailea hautatu edo izendatzeko prozedura, haren karguaren iraupena, dedikazioa eta funtzionamendu-araubidea.
- g) Diziplina-araubidea.
- h) Unibertsitatea iraungitzeko edo deusezteko arrazoiak; besteak beste, 420/2015 Errege Dekretuaren 13. artikuluan aipatzen den neurri zuzentzaileen plana ez aurkeztea edo ez onartzea.
- i) Garrantzitsutzat jotzen den beste edozein xedapen, baldin eta abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren eta unibertsitate-arloko gainerako arauen aurkakoa ez bada.

Atal honetan aurreikusitako betebeharrak frogatzeko, jarduera hasten denean, unibertsitateek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Arau horiek edo horien Estatutuak behin betiko onartu arte indarrean egongo diren antolaketa- eta funtzionamendu-arauek eta -egitura.
- b) Unibertsitatearen egoitzak non egongo diren eta dagokien autonomia-erkidegoko lurralde-eremuan non kokatuko diren zehaztea, dagozkien justifikazio-memoriekin eta aurretiaz dauden eraikin eta instalazioak zehaztea eta jarduerak eta irakaskuntzak erabat ezarri arte proiektatutakoak zehaztea.

BALIOESPENA:

Ez dira behar bezala betetzen unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu, baimendu eta egiaztatzeari buruzko maiatzaren 29ko 420/2015 Errege Dekretuan eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legean ezarritako betekizunak.

DIMENTSIOAREN BALIOESPENAREN JUSTIFIKAZIOA:

Hainbat arau eta barne-araudi aurkeztu dira:

- Antolamendu- eta funtzionamendu-arauak,
- Ikasleak ebaluatzeko araudia,
- Irakaskuntza propioetarako araudi,
- Ikasleen araudia,
- Unibertsitateko defendatzailearen araudia.

Oro har, ohiko estandarretara egokitzen dira eta ez da gabezia garrantzitsurik hauteman.

TXOSTENAREN ONDORIOAK:

EUNEIZ unibertsitate pribatu gisa onartzeko EUSTEIZ 2018 S.A.k aurkeztutako memoria analizatu eta aztertu ondoren, ondorioztatu da txostena KONTRAKOA dela, proposamenak ez baititu behar bezala betetzen maiatzaren 29ko 420/2015 Errege Dekretuan (Euskal Unibertsitate-sistemak eta -zentroek sortu, aitortu, baimendu eta egiaztatzeari buruzkoa) eta 3/2004 Legean ezarritako baldintzak, txosten honetan dimentsioz dimentsio zehaztu eta azaldu den moduan.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 4a.

Fdo./Stua: Eva Ferreira García

Unibasqeko Zuzendaria / Directora de Unibasq

I. ERANSKINA: 420/2015 ED

Irakaskuntza- eta ikerketa-guneen gutxieneko moduluak

Haien kopurua eta azalera aldi berean erabiliko dituzten ikasle kopuruaren arabera izango da, modulu hauen arabera:

a) Gelak:

Berrogei ikasle bitartean: metro bat eta berrogeita hamar zentimetro karratu ikasle bakoitzeko.

Berrogei ikasletik gora: metro bat eta hogeita bost zentimetro karratu ikasle bakoitzeko.

b) Irakaskuntza-laborategiak: bost metro karratu irakaskuntza-talde bakoitzari esleitutako ikasle bakoitzeko. Modulu hori ematen diren irakaskuntza ofizialei dagozkien irakaskuntza praktikoko beharren arabera egokitu ahal izango da. Eredu horretan aldagelak eta laborategiko babes-jantziak gordetzeko eremu edo altzari bat prestatu beharko da.

Laborategi horiek ikasgeletatik eta tutoretza-aretoetatik aparte egon beharko dute.

c) Ikerketa-laborategiak: 10-15 metro karratu irakasle edo ikertzaile bakoitzeko. Laborategi horiek ikasleen pasabidetik bereizita egon behar dute eta ez dira partekatu behar irakaskuntza-lanetarako.

Irakaskuntzarako eta ikerketarako eremuak irakaskuntza-ikaskuntza modalitateetara egokitzeko beharrezko malgutasuna izan beharko dute bai espazioan bai altzarietan.

Irakasleen bulegoek informatika- eta komunikazio-ekipo egokiak izango dituzte.

II ERANSKINA: 420/2015 ED

Osasun Zientzien arloko irakaskuntzetarako eskakizun bereziak.

a) Medikuntza, Erizaintza eta Fisioterapia irakasgaietan, honako hauek bermatu beharko dira:

1. Unibertsitateek gutxienez ospitale bat eta Oinarrizko Osasun Laguntzako hiru zentro (titulartasun publikokoak edo pribatukoak) izan beharko dituzte, unibertsitate publikoen kasuan itun batean edo unibertsitate pribatuen kasuan hitzarmen batean oinarrituta.
2. Osasun arloan eskumenak dituzten Ministerioek eta unibertsitateek batera ezartzen dituzten baldintzak (giza baliabideak eta baliabide materialak) bete beharko dituzte osasun erakundeek.
3. Itunean edo hitzarmenean zehaztuko dira ituntzen diren osasun erakundeen zerbitzuak eta haiekin harremanetan dauden departamentu edo unitate unibertsitarioak.
4. "Unibertsitate-ospitalea" izena erabiliko da kontzertua ospitale osoari buruzkoa denean edo haren zerbitzu eta/edo laguntza-unitate gehienak hartzen ditunean; soilik zerbitzu batzuk hitzartzen badira, "Unibertsitateari lotutako ospitalea" izango da. Gauza bera aplikatuko zaie Oinarrizko Osasun Laguntzako zentroei.

b) Odontologiako, Albaitaritzako eta Farmaziako irakaskuntzetarako, eta asistentzia-elementuak behar dituzten osasun-arloko beste irakaskuntza batzuetarako, beharrezkoak diren baliabide klinikoen eskuragarritasuna bermatu beharko da, unibertsitatearenak berarenak izan daitezten (Odontologiako, Podologiako, Psikologiako, Albaitaritzako ospitale klinikoak, etab.), erakunde publiko edo pribatuekin egindako hitzarmenen bidez, baldin eta administrazio eskudunak laguntza-zerbitzu horiek egiaztatzen baditu.

III ERANSKINA: 420/2015 ED

Unibertsitateak sortzeko/aitortzeko espedienterako justifikazio-dokumentazioa eta ondorengo baimena.

a) Haien helburu akademikoak eta abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 1. artikuluan ezarritako unibertsitatearen eginkizunak betetzea bermatuko duten irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren programazioa jasotzen dituen memoria.

b) 420/2015 Errege Dekretuaren 9. artikuluan aipatzen den jarduera-bermea justifikatzeko dokumentazioa.

c) 420/2015 Errege Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako antolamendu- eta funtzionamendu-betekizunak egiaztatzen dituen dokumentazioa.

d) Jardueraren hasieran dauden irakasleen eta ikertzaileen plantillaren justifikazioa, 420/2015 Errege Dekretuaren 7.6 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

e) Jarduera hastean administrazio eta zerbitzuetako langileen plantillaren justifikazioa, bai eta irakaskuntza guztiak ezarri arte urteko gehikuntzaren aurreikuspena ere.

f) Eman beharreko irakaskuntzen justifikazioa eta unibertsitate berriak jardueren hasieran izango duen zentro-kopurua, bai eta bete nahi diren unibertsitate-plazen guztizko kopurua ere, ikasturtez ikasturte adierazita, errendimendu osoa lortu arte, aipatutako jarduerak hasiko diren ikasturte akademikoa eta irakaskuntzak osorik ezartzeko eta ikastetxeak martxan jartzeko egutegia.

g) Unibertsitate berria osatzen duten titulazio ofizialekin zerikusia duten zientzia-arloetako helburuen eta ikerketa-programen justifikazioa, bai eta helburu horiek ziurtatzen dituzten egitura espezifikoena ere.

h) Irakaskuntza- eta ikerketa-eginkizunak garatzeko azpiegitura eta baliabide material egokiak eta nahikoak betetzen direla justifikatzea.

Unibertsitate pribatuek nortasun juridiko propioa dutela egiaztatu beharko dute, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.